

XEDAPEN OROKORRAK

HEZKUNTZA SAILA

5560

AGINDUA, 2024ko azaroaren 29koa, Hezkuntzako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako irakasleen konpetentzia digitala egiaztatzeko prozedura arautzen duena.

Etengabeko prestakuntza irakasle guztien eskubidea eta betebeharra da, eta hezkuntza-administrazioen eta ikastetxeen erantzukizun bat ere bai. Era berean, irakasleen prestakuntza eredu pedagogikoen etengabeko hobekuntzaren oinarri izan behar duen printzipioetako bat ere bada, euskal hezkuntza sistema osoak bikaintasunerantz aurrera egin dezan, ekitatez eta kalitatez.

Bikaintasunerako bide horretan, hezkuntza-sistema egokitu egin behar da iraultza digitalak sortzen dituen premietara eta aukeretara, hala trebetasunak garatzeko, nola ikertzeko eta ezagutza sortzeko. Ziurtatu ahal izateko hezkuntza-sistema aro digitalera arrakastaz egokituko dela, hezkuntza sistemak rol aktiboa bete behar du iraultza digitalean, irakasleei zein ikasleei trebetasun digital egokiak emanez.

Eta egoera horretan, irakasleen konpetentzia digitala areagotuta soilik bermatu daiteke ikasleen konpetentzia digitala garatuko dela eta ikaskuntzan konpetentzia digitalak erabiliko direla.

Euskal Hezkuntza Sistemaren Eraldaketa Digitalerako Planak (2022-2024) esparru berri bat bultzatu nahi du, berrikuntza pedagogikorako palanka izanik, trebetasun digitalen garapenerako oinarriak indartuko dituen, teknologien integrazio eraginkorraren eta erabilera optimoaren bidez. Horrenbestez, plan horrek lagundu behar du teknologia berriak normaltasunez erabiltzen irakasleen irakaskuntza-jardunean, komunikazioa, parte-hartzea eta ikaskuntza erraztuko duten metodologiaren bidez. Hori lortzeko, planak ekintza-mugarri garrantzitsu gisa jasotzen ditu: alde batetik, «Irakasleen konpetentzia digitala aitortzeko eredu diseinatzea», prestakuntza-ibilbideei lotutako ziurtapen- eta egiaztatze-mekanismoak definituz, eta, bestetik, «Irakasle-eginkizunean sartu berri diren prozeduretan irakasle-jardunerako beharrezkoa den konpetentzia-maila bermatzea», bi ekintzaren bidez: lehiaketa publikoetan konpetentzia digitala ebaluatze mekanismoak diseinatz eta praktiketako funtzionarioaren ebaluazioan irakasle-konpetentzia ebaluatzea txertatuz.

Maiatzaren 30eko 75/2023, 77/2023 eta 76/2023 Dekretuek, hurrenez hurren Haur Hezkuntzako, Oinarrizko Hezkuntzako eta Batxilergoko curriculumak ezartzeari eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeari buruzkoak, irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuetan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia txertatzea agintzen dute, hezkuntza-etapa bakoitzaren ezaugarri eta beharretara egokituta.

Ikaskuntzaren ingurune pertsonala digitalizatzea kontzeptua txertatzen da: hau da, ikasle bakoitzak bere ingurune analogiko eta digitalean, ikaskuntza-beharren arabera, erabiltzen dituen informazio-iturrien, tresnen, konexioen eta jardueren multzoa litzateke; horrek guztiak, lanak modu sortzaile, kritiko, eraginkor eta seguruan egiteko aukera emango dio. Konpetentzia horren bidez, ikasleak prestatu nahi dira gailuak erabiltzetik eta sarean informazioa bilatzetik haratago doan ingurune digital batean molda daitezen. Konpetentzia digitala garatuta, beste hauek ere egin ahal izango dira: teknologiarik ematen zaion erabilera ulertu eta balioetsi genero-estereotipoetatik at; lanean produktibitatea eta efizientzia handitu; informazioa interpretatzeko, antolatze eta aztertze trebetasunak garatu; edukia sortu; bitarteko informatikoen bidez komunikatu, eta

modu kooperatiboan lan egin. Era berean, konpetentzia horrek ingurune digitala modu kritiko eta seguruan erabiltzeko estrategiak ezagutzea dakar, arriskuez jabetzea, arriskuak nola saihestu edo gutxitu ikastea, beharrezkoa denean laguntza eskatzea eta izan daitezkeen arazo teknologikoak ahalik eta modu autonomoenean konpontzea.

Ikastetxeen eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen digitalizazio etiko eta arduratsua garatzeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren abenduaren 21eko 17/2023 Legeak ezartzen duen bezala, hezkuntza-komunitate osoa digitalki ahalduentzea dakar.

Zentzu horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 28ko 4/2018 Legeak 31. artikuluan hau ezartzen du irakasleen prestakuntzari buruz: lanbide-heziketan berrikuntza eta etengabeko hobekuntza sustatzeko, ezinbestekoa izango da irakasleak prestatzea, ikasgeletan lantzeko ikaskuntza metodologia aktibo berriak ikasi eta gara ditzaten, bai eta eduki profesional espezifikoak berengana ditzaten ere, irakasle horiek ingurune konplexuetan aritzeko konpetentziak areagotzeko. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren arloan eskumena duen sailak irakasleak prestatzeko programak ezarriko ditu, eta teknologikoki oso aurreratuak diren inguruneei erantzuteko ekintzak sustatuko ditu.

Alde horretatik, Lanbide Heziketa Antolatu eta Integratzeko martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organikoak, bederatzigarren xedapen gehigarrian («Lanbide Heziketako digitalizazioko eta adimen artifizialeko konpetentzia-plana»), jasotzen du lanbide-heziketako irakasle eta hezitzaile guztiek irakasleen konpetentzia digitalaren aitorpena lortzea sustatuko duela, Irakasleen Konpetentzia Digitalaren Erreferentzia Esparruan.

Gainera, Lanbide Heziketako Sistemaren antolamendua garatzen duen uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretua oinarri hartuta, ikastetxeek berrikuntza teknologikoaren, eraldaketa digitalaren, murgiltze-teknologiaren eta ikaskuntza-metodologia aurreratuaren arloko prestakuntza-prozesuei ekin beharko diete, administrazio eskudunek eta ikastetxeek beraiek bultzatuta, testuinguru berri-tzaile bat sor dadin.

Irakasleen egiaztagiri digitala Europako Kontseiluak 2020an onartutako Next Generation EU tresna finantzarioaren barruan kokatzen da, zeinaren bidez ordaintzen baita pandemiaren ondorioei aurre egiteko diseinatutako suspertze-plana, «Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa» izenekoa (SEM). Hezkuntzaren arloan, plan horren helburua da, besteak beste, hezkuntza eta ezagutza, prestakuntza jarraitua eta gaitasun digitalen garapena modu eraginkorrean sustatzen lagunduko duten ekintzen multzoa inplementatzea.

Orobat, Ebaluazioko eta Lurralde Lankidetzako Zuzendaritza Nagusiaren 2022ko maiatzaren 4ko Ebazpenaren bidez, Hezkuntzako Konferentzia Sektorialaren Erabakia argitaratu zen, Irakasleen Konpetentzia Digitalaren Erreferentzia Esparrua eguneratzen duena.

Era berean, Ebaluazioko eta Lurralde Lankidetzako Zuzendaritza Nagusiaren 2022ko uztailaren 1eko Ebazpenak, «Irakasleen konpetentzia digitala ziurtatu, egiaztatu eta aitortzeari buruzko Hezkuntzako Konferentzia Sektorialaren Erabakia» argitaratzen du, eta seigarren puntuari ezartzen, hezkuntza-administrazioetako unitateek izango dutela, beren eskumenen esparruan, irakasleen konpetentzia digitala egiaztatzeko araudia onartzeko ardura, ebazpena BOEn argitaratzen denetik urtebeteko epean. Manu horren arabera, Hezkuntzako sailburuak emandako agindu honek, Hezkuntzako sailburua baita arau-garapena egitea dagokion hezkuntza-administrazioa, irakasleen konpetentzia digitala egiaztatzeko prozedura arautzen du.

Azkenik, adierazi behar da agindu hau bat datorrela Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean jasotzen den erregulazio onaren printzipioekin:

premia, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia. Lege horrek interes orokorra bilatzen du, egonkortasuna eta jarraitutasuna ematen baitio irakasleen konpetentzia digitala egiaztatzeko prozedurari, Hezkuntzako Konferentzia Sektorialaren Erabakian jasotako baldintzetan (2022ko uztailaren 12ko BOE), eta zorrotz betetzen baitu aipatutako legearen 129. artikuluan ezarritako agindua. Gainera, eskubideak gutxiago murrizten dituen beste aukera arautzailerik ez dagoenez, ordenamendu juridikoarekiko koherentziari eusten dio eta baliabide publikoak eraginkorrago kudeatzea ahalbidetzen du.

Azaldutakoagatik, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuan aurreikusitakoarekin bat etorritz (2021eko martxoaren 5eko EHAA, 47. zk.), eta eman zaizkidan ahalmenak baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea eta aplikazio-eremua.

1.– Agindu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako irakasleen konpetentzia digitala egiaztatzeko prozedura arautzea, bat etorritz hezkuntza-administrazioek Hezkuntzako Konferentzia Sektorialaren Erabakian adostutako oinarritzko printzipio erkideekin (Irakasleen konpetentzia digitala ziurtatzeari, egiaztatzeari eta aitortzeari buruzko erabakia, 2022ko uztailaren 1eko Ebazpenean jaso eta 2022ko uztailaren 12ko BOEn argitaratua).

2.– Arau honen aplikazio-eremu subjektiboa honako hau da:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemako unibertsitatez kanpoko irakaskuntzetako irakasleak, zerbitzu aktiboan edo enplegatu publikoaren legerian edo lan-araubidean haien balio-kideetan jasotako gainerako administrazio-egoeretan daudenak.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrendetan dauden pertsonak.

c) Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren pertsonak, baldin eta aurreko bi kasuetako batean ere ez badaude eta Euskal Autonomia Erkidego honetan hezkuntza-sistemako irakaskuntzak emateko indarrean dagoen araudian ezarritako baldintza guztiak betetzen badituzte.

2. artikulua.– Egiaztatze-prozeduren hasiera.

1. eranskinean jasotako egiaztatze-prozedurak honela hasi eta ebatziko dira:

a) Ofizioz, irakasleen prestakuntzaren arloan eskumena duen organoaren titularrak emandako ebazpenaren bidez.

b) Irakasleen prestakuntzaren arloan eskumena duen organoaren titularrak egindako deialdi publikoa, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua, eta haren oinarrien arabera.

3. artikulua.– Ofizioz egiaztatzea.

1.– Irakasleen prestakuntzaren arloan eskumena duen organoak ofizioz egiaztatu ahal izango du irakaskuntzako konpetentzia digitala, xede horretarako aitortutako prestakuntza-jarduera gainditu dutenei.

2.– Organo horrek, behin-behineko ebazpen baten bidez, dagokion maila egiaztatu dutenen zerrenda onartuko du. Ebazpen horretan, xede horretarako onartutako prestakuntza-jarduerak zehaztuko dira. Irakasleek hamar egun baliodun izango dituzte, behin-behineko ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, egoki iritzitako erreklamazioak aurkezteko. Alegazio horiek

onartutzat edo ukatutzat joko dira behin betiko ebazpenaren bidez, eta behin-behineko ebazpena argitaratu eta gehienez ere hilabeteko epean argitaratuko da. Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoaren goragokoari.

4. artikulua.– Deialdi publiko bidez egiaztatzea.

1.– Aldian-aldean, EAEko unibertsitatez kanpoko irakasleen prestakuntzako eskumena duen organoak irakasleen kompetentzia digitala egiaztatzeko prozeduretarako deialdia egingo du. Deialdi horietan, kasu bakoitzean, deialdi honen xede diren egiaztapen-prozedura edo -prozedurak, l. eranskinean aurreikusitakoen artean:

- a) prestakuntza ziurtatzea.
- b) berariazko proba gainditzea.
- c) irakasle-lanbiderako gaitzen duten titulu ofizialak.
- d) jarduna behatuz egiten den ebaluatzea.
- e) C1 edo C2 mailetako adierazleekin bateragarriak diren ebidentziak aztertze eta baloratze prozesu baten bidez egiaztatzea.

2.– Deialdian, parte hartzeko zer baldintza bete behar diren zehaztuko da, eta, gutxienez, honako alderdi hauek jasoko dira:

- a) Eskakerak aurkezteko modua eta epea.
- b) Aurreikusitako egiaztapen-prozedura edo -prozedurak.
- c) Egiaztapen-batzordea nork osatzen duen.
- d) Batzorde teknikoaren osaera eta eginkizun espezifikoak, halakorik balego, bai eta batzordekideen izendapena ere.
- e) Balorazio-irizpideak.
- f) Ebazpen-prozedura.
- g) Egiaztapenari buruzko emaitzak argitaratzeko prozedura.

3.– Indarrean dagoen Irakasleen Kompetentzia Digitalaren Erreferentzia Esparrua izango da deialdien egiaztapen-erreferentzia, zeina Ebaluazioko eta Lurralde Lankidetzako Zuzendaritza Nagusiaren 2022ko maiatzaren 4ko Ebazpenaren bidez eguneratu baitzen. Ebazpen horren bidez, Irakasleen Kompetentzia Digitalaren Erreferentzia Esparrua eguneratzeari buruzko Hezkuntzako Konferentzia Sektorialaren Erabakia argitaratu zen.

5. artikulua.– Egiaztatze-batzordea.

1.– Agindu honetan aipatzen diren prozeduretan, egiaztatze-batzorde batek gauzatuko ditu prozedura horiek. Batzorde hori EAEko unibertsitatez kanpoko irakasleen prestakuntzaren arloko eskumena duen organoak izendatuko du prozedura edo deialdi bakoitzerako, eta kide hauek izango ditu:

- a) Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzako Irakasleen Etengabeko Ikaskuntzako eta Hobekuntzako Zerbitzuko arduraduna, zeina batzordeburua izango baita.
- b) Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzako zerbitzuburua.

c) Hezkuntza Sailaren lurralde-ordezkaritzetako berrikuntza-arduradunak.

d) Unibertsitatez kanpoko hezkuntzarako laguntza-zerbitzuetako digitalizazioaren eta berrikuntza teknopedagogikoaren arloko koordinatzaile bat (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza).

e) Unibertsitatez kanpoko hezkuntzarako laguntza-zerbitzuetako digitalizazioaren eta berrikuntza teknopedagogikoaren arloko koordinatzaile bat (Lanbide Heziketa).

f) Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzako Irakasleen Etengabeko Ikaskuntzako eta Hobekuntzako Zerbitzuko teknikari bat, zeina batzordeko idazkari ere izango baita.

g) Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzako teknikari bat.

2.– Batzordea osatzerakoan, bi sexuen ordezkaritza orekatua bermatuko da, hau da, ez % 40 baino gutxiago, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 10. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3.– Era berean, osieran, kideek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan konpetentzia nahikoa dutela bermatuko da.

4.– Egiaztatze-batzordeak egiaztapen-prozedura edo -deialdi bakoitzean ad hoc sortutako batzorde teknikoaren laguntza jaso dezake. Batzorde tekniko horiek hezkuntzarako laguntza-zerbitzuetako digitalizazioaren eta berrikuntza teknopedagogikoaren arloko aholkulariek osatuko dituzte.

5.– Batzorde bakoitzaren funtzionamendu-araubidea bat etorriko da kide anitzeko organoak arautzen dituen urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluaren II. kapituluaren 3. atalean ezarritakoarekin.

6.– Egiaztatze-batzordeak eginkizun hauek izango ditu:

6.1.– Ofiziozko prozeduran, batzordeak prozedura gainbegiratu du eta egiaztatu beharreko pertsonen zerrenda igorriko dio Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko mailetako irakasleen etengabeko prestakuntzaren arloan eskumena duen organoari.

6.2.– Egiaztatze-prozeduran, zeina deialdi publiko bidez egingo baita, eginkizun hauek izango ditu batzordeak:

a) eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioa edo merezimenduak baloratzea, deialdietan ezarritako irizpideen arabera.

b) behar izanez gero, eskabideetan alegatutako merezimenduak egiaztatzeko balioko duen dokumentazioa eskatzea.

c) egiaztatutako eta egiaztatu gabeko eskatzaileen behin-behineko zerrendak egitea.

d) behin-behineko zerrenden eta batzordearen beraren egintzen aurka aurkeztutako erreklamoak aztertzea.

e) baloratutako eskabideen behin betiko zerrenda egitea, egiaztatu duten ala ez adieraziz.

f) ebazpen-proposamena aurkeztea organo eskudunari.

g) aurkeztutako dokumentazioa eta prozeduran sortzen den guztia administrazio eskudunari ematea, behin prozedura bukatu ostean.

h) egiaztatze-prozedurak behar bezala funtzionatzen duela bermatzeko komeni diren beste guztiak.

6. artikulua.– Egiaztagiria.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko mailetako irakasleen etengabeko prestakuntzaren arloan eskumena duen organoaren titularrak egiaztatze-prozeduretan parte hartu duten pertsonak lortutako irakaskuntzako konpetentzia digitalaren maila egiaztatzen duen agiria emango du.

2.– Egiaztagiria eskuratu duten irakasleek Hezigueko Langileen Atariko eremu pribatuan izango dute agiria eskuragai.

7. artikulua.– Egiaztagiri-eredua.

Irakasleen konpetentzia digitala egiaztatzen duen dokumentua ofiziala izango da, eta Estatuko lurralde osoan izango du balioa. Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan egingo da, II. eranskinean jasotako ereduari jarraikiz. Gutxienez, alderdi hauei buruzko datuak jasoko ditu:

a) egiaztagiria arautzen duen araudiaren aipamena.

b) irakasleen konpetentzia digitalaren aitortpena eta egiaztatze-prozedura.

c) egiaztapenaren izena.

d) irakasleen konpetentzia digitalaren maila eta dagokion irakasleen konpetentzia digitalaren esparruaren aipamena (A1, A2, B1, B2, C1 eta C2).

e) Hezkuntza Sailaren zer zuzendaritzak eman duen.

f) eskatzailearen datuak (izen-abizenak eta NANA)

g) emate-data.

h) egiaztapen-kode segurua (EKS).

i) konpetentzia digitalaren C2 maila egiaztatuz gero, Irakasleen Konpetentzia Digitalaren Erreferentzia Esparruan (IKDEE) zer arlo egiaztatu den, eta zer konpetentzia edo lorpen-adierazle dagozkion jasoko da.

8. artikulua.– Datuen babesari buruzko informazioa.

Datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta «Irakasleen prestakuntza» izeneko tratamendu-jardueran sartuko dira:

Arduraduna: Hezkuntza Saila.

Helburua: irakasleen egiaztapena.

Legitimazioa: tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko.

Hartzaileak: Euskal Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk, EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeak.

Eskubideak: interesdunek eskubidea dute datuetarako irispidea izateko, datu horiek zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehigarria eta xehea web-orri honetan kontsulta daiteke: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gar-dentasuna/050400-cap2-eu.shtml>

Araudia:

Europako Parlamentuaren eta Batzordearen (EB) 2016/679 Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, pertsona fisikoak babesten dituen datu pertsonalen tratamenduari eta datuen zirkulazio askeari dagokienez, eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>).

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673>).

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.– Agindua argitaratu aurretik emandako prestakuntzak ebazpen bidez egiaztatzea.

Ofizioz egiaztatuko zaie irakasleen konpetentzia digitalarekin lotutako edozein mailatako ikas-taroetan aprobetxamendu-ziurtagiria lortu duten pertsonen, Hezkuntzako sailburuordearen 2024ko azaroaren 29ko eta Lanbide Heziketako sailburuordearen 2024ko azaroaren 29ko Ebazpenen bidez.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Beste hezkuntza-administrazio batzuen egiaztagiria.

Baliokidetzat hartuko dira, eta, beraz, baliozkotzat onartuko, Estatuko beste hezkuntza-administrazio batzuek irakasleen konpetentzia digitalean emandako egiaztagiria, baldin eta bat badatoz Ebaluazioko eta Lurralde Lankidetzako Zuzendaritza Nagusiaren 2022ko uztailaren 1eko Ebazpenarekin, zeinaren bidez argitaratzen baita Hezkuntzako Konferentzia Sektorialaren erabakia, irakasleen konpetentzia digitala ziurtatzeari, egiaztatzeari eta aitortzeari buruzkoa.

Egiaztagiria beste autonomia erkidego batean lortu duten pertsonen egiaztagiri hori langileen erregistroan sartzeko eska dezakete.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Aplikazioa.

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakasleak prestatzeko eskumena duen organoari baimena ematen zaio agindu honetan xedatutakoa aplikatzeko behar diren ebazpenak emateko.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Indarrean jartzea.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 29a.

Hezkuntzako sailburua,
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.

I. ERANSKINA

Irakasleen konpetentzia digitala ziurtatzeko, egiaztatzeko eta aitortzeko prozedurak. Prozedura horiek irakasleen konpetentzia digitala ziurtatu, egiaztatu eta aitortzeari buruzko Hezkuntzako Konferentzia Sektorialaren 2022ko ekainaren 23ko Erabakiaren bidez onartu ziren, eta egiaztatze-prozedurak arautu eta zehazten dira.

Irakasleen konpetentzia digitalaren maila	Egiaztapen-prozedurak
A1 Oinarrizko maila	A1 maila egiaztatu ahal izango da Hezkuntza Sailak, bere eskumenen esparruan, honako hauen artean zehazten dituen prozeduren bidez: 1.– Prestakuntza ziurtatzea: Gutxienez 40 orduko iraupena duen prestakuntza-jarduera bat edo batzuk, biltzarrak eta jardunaldiak izan ezik, Hezkuntza Sailak xede horretarako onartutakoak, baldin eta indarrean dagoen IKDEEko konpetentzien A1 mailako arlo guztiak betetzen badituzte. 2.– Berariazko egiaztapen-proba gainditzea: Indarrean dagoen IKDEEko konpetentzien A1 maila egiaztatzeko proba espezifiko (maila horretako arlo guztiak eta, gutxienez, adierazleen % 80 bete behar dira). 3.– Irakasle izateko gaitzen duten titulu ofizialak (Haur Hezkuntzako maisu-maistraren Gradua, Lehen Hezkuntzako maisu-maistraren Gradua, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleak prestatzeko Unibertsitate Masterra, Lanbide Heziketako irakasle teknikoentzako espezializazio didaktikoko ikastaroak, etab.), hezkuntza-teknologiei buruzko aipamenak maisu-maistraren graduatan eta ikasgelan teknologiak erabiltzeko konpetentzia digitalari buruzko unibertsitate-master ofizialean; betiere indarrean dagoen IKDEEko konpetentzien A1 mailako arlo guztiak eta, gutxienez, adierazleen % 80 betetzen badituzte.
A2 Oinarrizko maila	A2 maila egiaztatu ahal izango da Hezkuntza Sailak, bere eskumenen esparruan, honako hauen artean zehazten dituen prozeduren bidez: 1.– Prestakuntza ziurtatzea: Gutxienez 50 orduko iraupena duen prestakuntza-jarduera bat edo batzuk, biltzarrak eta jardunaldiak izan ezik, Hezkuntza Sailak xede horretarako onartutakoak, baldin eta indarrean dagoen IKDEEko konpetentzien A2 mailako arlo guztiak betetzen badituzte. 2.– Berariazko egiaztapen-proba gainditzea: Indarrean dagoen IKDEEko konpetentzien A2 maila egiaztatzeko proba espezifiko (maila horretako arlo guztiak eta, gutxienez, adierazleen % 80 bete behar dira). 3.– Irakasle izateko gaitzen duten titulu ofizialak (Haur Hezkuntzako maisu-maistraren Gradua, Lehen Hezkuntzako maisu-maistraren Gradua, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleak prestatzeko Unibertsitate Masterra, Lanbide Heziketako irakasle teknikoentzako espezializazio didaktikoko ikastaroak, etab.), hezkuntza-teknologiei buruzko aipamenak maisu-maistraren graduatan eta ikasgelan teknologiak erabiltzeko konpetentzia digitalari buruzko unibertsitate-master ofizialean; betiere indarrean dagoen IKDEEko konpetentzien A2 mailako arlo guztiak eta, gutxienez, adierazleen % 80 betetzen badituzte.
B1 Tarteko maila	B1 maila egiaztatu ahal izango da Hezkuntza Sailak, bere eskumenen esparruan, honako hauen artean zehazten dituen prozeduren bidez: 1.– Prestakuntza ziurtatzea: Gutxienez 60 orduko iraupena duen prestakuntza-jarduera bat edo batzuk, biltzarrak eta jardunaldiak izan ezik, Hezkuntza Sailak xede horretarako onartutakoak, baldin eta indarrean dagoen IKDEEko konpetentzien B1 mailako arlo guztiak betetzen badituzte. 2.– Berariazko egiaztapen-proba gainditzea: Indarrean dagoen IKDEEko konpetentzien B1 maila egiaztatzeko proba espezifiko (maila horretako arlo guztiak eta, gutxienez, adierazleen % 80 bete behar dira). 3.– Jarduna behatuz ebaluatzea (nahitaez bete beharko da prestakuntza-ziurtagiriek ez badute erakusten praktikan jarri izanaren ebidentziarik): Indarrean dagoen IKDEEko B1 mailaren ebaluazioa gainditzea jardunaren behaketaren bidez. Horretarako, Hezkuntza Sailak bere eskumenen esparruan zehazten duen ebaluazio publikoko gida erabili beharko da.

Irakasleen kompetentzia digitalaren maila	Egiaztapen-prozedurak
B2 Tarteko maila	B2 maila egiaztatu ahal izango da Hezkuntza Sailak, bere eskumenen esparruan, honako hauen artean zehazten dituen prozeduren bidez: 1.– Prestakuntza ziurtatzea: Gutxienez 70 orduko iraupena duen prestakuntza-jarduera bat edo batzuk, biltzarrak eta jardunaldiak izan ezik, Hezkuntza Sailak xede horretarako onartutakoak, baldin eta indarrean dagoen IKDEEko kompetentzien B2 mailako arlo guztiak betetzen badituzte. 2.– Berariazko egiaztapen-proba gainditzea: Indarrean dagoen IKDEEko kompetentzien B2 maila egiaztatzeako proba espezifikoak (maila horretako arlo guztiak eta, gutxienez, adierazleen % 80 bete behar dira). 3.– Jarduna behatuz ebaluatzea (nahitaez bete beharko da prestakuntza-ziurtagiriek ez badute erakusten praktikan jarri izanaren ebidentziarik): Indarrean dagoen IKDEEko B2 mailaren ebaluazioa gainditzea jardunaren behaketaren bidez. Horretarako, Hezkuntza Sailak bere eskumenen esparruan zehazten duen ebaluazio publikoko gida erabili beharko da.
C1 Maila aurreratua	C1 maila egiaztatu ahal izango da Hezkuntza Sailak, beren eskumenen esparruan, honako hauen artean zehazten dituen prozeduren bidez (indarrean dagoen IKDEEko C1 mailako arlo guztiak eta, gutxienez, adierazleen % 80 bete behar dira): 1.– Jarduna behatuz ebaluatzea: Jarduna behatuz, indarrean dagoen IKDEEko C1 mailaren ebaluazioa gainditzea. Horretarako, Hezkuntza Sailak bere eskumenen esparruan zehazten duen ebaluazio publikoko gida erabili beharko da. 2.– Ebidentziak aztertuz eta baliozkotuz egiaztatzea. Ebidentziek bateragarri izan behar dute indarrean dagoen IKDEEko C1 mailako adierazleekin. Hauek ebidentziatzat hartuko dira eta dokumentatu egin beharko dira, eta irakasleen kompetentzia digitalekin berariaz lotuta egon beharko dute: – IKTen koordinazioa edo lanpostu baliokidea. – Hezkuntza-administrazioek emandako sari izendunak. – NIPO edo ISBN, ISSN, DOI edo URLa duten argitalpenak. – Ikastetxeetako prestakuntza-proiektuak koordinatzea. – Prestakuntza-ekintzetan tutore edo hizlari gisa parte hartzea. – Ikerketa eta berrikuntzako talde-proiektuetan parte hartzea. – C1 maila egiaztatzen duen beste edozein ebidentzia.
C2 Maila aurreratua	Arloka egiaztatu ahal izango da C2 maila, Hezkuntza Sailak, bere eskumenen esparruan, honako hauen artean zehazten dituen prozeduren bidez: 1.– Jarduna behatuz ebaluatzea: Jarduna behatuz, indarrean dagoen IKDEEko C2 mailaren ebaluazioa gainditzea. Horretarako, Hezkuntza Sailak bere eskumenen esparruan zehazten duen ebaluazio publikoko gida erabili beharko da. 2.– Ebidentziak aztertuz eta baliozkotuz egiaztatzea. Ebidentziek bateragarri izan behar dute indarrean dagoen IKDEEko C2 mailako adierazleekin. Hauek ebidentziatzat hartuko dira eta dokumentatu egin beharko dira, eta irakasleen kompetentzia digitalekin berariaz lotuta egon beharko dute: – Hezkuntza-administrazioek emandako sari izendunak. – NIPO edo ISBN, ISSN, DOI edo URLa duten argitalpenak. – Hizlari gisa parte hartzea autonomia-, nazio- eta nazioarte-mailako biltzarretan. – Hezkuntzako ikerketa- eta berrikuntza-proiektuak koordinatzea eta egitea. – Hezkuntza-administrazioen aitorpena jaso izana, hezkuntzaren arloan hobekuntza garrantzitsuak egiteagatik. – Ibilbide profesionala ebaluatzeako curriculumak. – C2 maila egiaztatzen duen beste edozein ebidentzia.

II. ERANSKINA
EGIAZTAGIRI-EREDUA

Hezkuntzako /Lanbide Heziketako sailburuordeak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako irakasleen kompetentzia digitala egiaztatzeko prozedura arautzen duen Hezkuntzako sailburuaren 2024ko XXXXaren XX(e)ko Aginduarekin bat etorritz, kontuan hartuta
.....(izen-abizenak) jaunak/andreak,NAN zenbakia duenak,
gainditu egin duela 20XX(e)ko XXXXaren XX(e)ko Ebazpenean xedatutako egiaztatze-prozedura, prestakuntza homologatuta edo ziurtatuta / proba espezifikoa gaindituta / jardunaren behaketaren bidezko ebaluazioa eginda / ebidentziak baliozkotuta,
Irakasleen Kompetentzia Digitalaren (A1, A2, B1, B2, C1, C2) mailaren egiaztagiria egiten du, Irakasleen Kompetentzia Digitalaren Erreferentzia Esparruari jarraikiz.
Vitoria-Gasteizen emana, xxxx(e)ko xxaren x(e)(a)n
Egiaztagiria ofiziala da, eta Estatuko lurralde osorako balio du.
..... (arduradun sinatzailea)
(EKS)
(EKS)